



BILBOKO AIREPORTUKO HEGALDIAK



Uda denboraldia hasi da Bilboko Aireportuan

Uda aurreratu egin da Bilboko Aireportuan. Astelehen honetan abiatu du Loiuako aireportuak udako denboraldia, 4,18 milioi eserleku, iazkoan baino %10,2 gehiago, eskainita. Urrian amaituko den denboraldi honetan, programatutako mugimenduak %7,4 hazi dira.

Halaber, helmuga berriak izango dira. Easyjet konpainiak bi hegaldi eskainiko ditu astean (asteazken eta igandeetan) Edinburgora. Marokoko hegaldi merkeen konpainiak, Royal Air Marocek, hiru hegaldi izango ditu astean (astelehen, asteazken eta ostiraletan) Casablancara, ekainetik aurrera.

Ohikoa den bezala, udan sarriagoak izaten dira uharteetara joateko bidaiak, eta, hori dela eta, hegaldi gehiago eskainiko dituzte airelineek. Norwegianek Hegoaldeko Tenerifera egingo du hegan astean bitan, apirilaren 14tik urriaren 23ra. Voloteak Eivissara eta Palmara joateko hegaldiak egingo ditu, baita Vuelingek ere (azken horretara bakarrik). EasyJet, Air France eta Vueling konpainiek Bilbo eta Paris lotuko dituzte, Charles De Gaulle eta Orly aireportuetara hegaldiak eskainita. Azkenik, KLM airelineak hiru hegaldi eskainiko ditu egunean Amsterdamera.

Euskadiko bi jatetxe, munduko onenatarikoen 51tik 100era zerrendan

Euskadiko bi jatetxe, Bilboko Nerua eta Gipuzkoako Martin Berasategi, munduko onenatarikoen "51tik 100era zerrenda"n sartu dira, "Munduko 50 jatetxerik onenak" taldeak jakinarazi duenez. Nerua jatetxea 56. postuan dago, Martin Berasategi, berriz, 77. postuan dago.



Ehun jatetxerik onenen rankingaren bigarren zati hori, Australian apirilaren 5ean egingo den ekitaldirako prestatzeko da. Orduan ezagutaraziko dituzte zerrendako lehenengo postuak.

Ehun jatetxerik onenen rankinga munduko hainbat tokiko 1.040 adituen botoekin egiten da. Bakoitzak hamar boto ematen ditu, eta horietatik lau euren herrialdetik kanpokoak izan behar dute.

Tetraplegiko batek besoa mugiarazi du buruarekin inplante baten bidez

Orain dela zortzi urtetik hona tetraplegia egoeran dagoen gizon batek pentsamenduekin besoa mugiaraztea lortu du, historian lehen aldiz, besoak eta eskuak mugiarazteko seinaleak bidaltzen dituzten neuroprotesi biri esker, buruan instalatuak.

Ikerketa *Lancet* zientziari buruzko aldizkarian plazaratu dute eta BrianGaten azken lana da. BrianGate buruko interfazeen teknologiarekin lan egiten duen ikerlari talde bat da, mugikortasuna geldiarazita dutenei mugimenduak egiten laguntzeko.



Buruko inplante bat eta estimulazio elektrikoaren sistema bat erabili dute Bill Kochevarrek (56 urte) bere besoaren kontrola izatea ahalbidetzeko.

Hori lortzeko, taldeak bi sentsore sartu dizkio buruan, bakoitza aspirina baten neurrikoak, 96 elektrodorekin, buruko jarduera jasotzeko sortuak.

Kochevarrek besoa mugitzen imajinatzen duenean bere buruak seinale elektrikoak sortzen ditu, hots, pentsamenduak. Sentsoreok sortutako seinale horiek jasotzen dituzte eta, ondoren, ordenagailu batera bidali.

Hortik, ordenagailuak seinaleak birbidaltzen ditu, oraingo honetan, estimulazio elektrikoaren sistemara, eta horrek seinaleak transmititu Kochevarren besoko eta eskuko giharretan sartutako 30 kableen bidez, mugimendu espezifikoak sorrarazteko.

Etzi hasiko da Euskal Herriko Itzulia



Etzi hasiko da Iruñean Euskal Herriko Itzulia. 160 txirrindularik hartuko dute parte, 20 taldetan banaturik. Trek-Segafredoren Alberto Contadorrek eramango du 1 zenbakia, berak irabazi baitzuen 2016ko Itzulia. Alejandro Valverde faboritoa den Movistar Team taldearen buruzagia izango da.



Apirilak 3:

Iruñea –
Eguesibar

Apirilak 5:

Gasteiz – Donostia

Apirilak 7:

Bilbo – Eibar

Apirilak 4:

Iruñea – Eltziego

Apirilak 6:

Donostia – Bilbo

Apirilak 8:

Eibar – Eibar
(erlojupekoa)



Miren Agur Meabe Mukusuluban

Irakurzaletasuna bultzatzeko programaren barruan, idazle baten bisita urtero antolatu ohi da eta oraingoan, Mukusulubako 6. mailako ikasleek Miren Agur Meabe idazle lekeitiarra izan dute beraiekin. Solasean egoteko eta berari hainbat galdera egiteko aukera izan dute umeez.

Miren Agur Meabe 1962an jaio zen. Irakasle ikasketak egin zituen eta Euskal Filologiako litzentziatua ere bada. Izan ere, irakasle bezala aritu zen zenbait urtez. Editore lanetan ere ibili da. Idazle gisa, arlo bitan da ezaguna batez ere: poesian eta haur eta gazte literaturan. Bere liburu batzuk beste hizkuntza batzuetara itzuli dituzte, baita braillean jarri ere.

Ikasleek galdera ugari azaldu dute eta sakonak eta zabalak izan dira idazlearen erantzunak, haurtzaroren oroigarriak eta idazteko arrazoiak, besteak beste.

Amaitzeko, eta kolore eta metaforen garrantzia azaltzeko, idazleak sinbolismoz beteriko olerki bat dedikatu die bertako ikasleei: “Itxaropena arraun berde bat da”.

Eguraldia ezatsegina astebururako



Larunbatean, etengabe zaparradak

sartuko dira itsasotik, batez ere arratsaldean, eta zenbait kasutan trumoiatsuak izan daitezke eta txingorra ere bota dezake. Tenperatura maximoak ozta-ozta iritsiko dira 12-14 °C-ra. Haizea zakar ibiliko da. **Igandean**, berriz, euri gutxiago pilatuko da. Haizea baretuz joango da eta tenperatura oso antzekoa izango da. Gauean atertzera egingo du.